

# Hezkuntza eta Kirol Fakultatea



1

# Kulturartekotasuna

**MINORRA**

**4.MAILA**

Gida honetan, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean laugarren mailako ikasleek gauza dezaketen minorrari buruzko informazioa ematen da eta batez ere *Proiektu Espezifikoaren Kudeaketa* ikasgaiaren egin beharreko lanaren zehaztasunak azaltzen dira.

## 1. SARRERA

XXI mendeko bigarren hamarkada honetako mundua estatuei, banakoei eta kulturei hainbeste eragiten dien globalizazioaren ondorioa da. Prozesu konplexu eta poliedriko honek era sakon eta bizian bultzatzen du mundu mailako produktuen trukea, ondareen partekatzea eta banakoen joan-etorria.

Globalizazio neoliberalak, ostera, homogeneizazioa bilatzen du eredu hegemonikoaren inguruan eta bere eragina politikan, ekonomian, kulturen eta gizartearen ikusten da. Proiektu bateratzaile honek erronka egiten dio XXI. mendean bizirik jarraitzen dituzten mila kultura desberdinei. Aipaturiko erronka hau hezurmamitu egiten da bereziki giza migrazioen kasuan. Izan ere, mundu mailako arazo bihurtu da eta berdin eragiten die nazio-estatuari zein kultura, talde ala banakoei. Migrazioen arrazoen artean gatazkak, ingurumen hondamendiak edo bizitza hobetzeko asmoz sorturiko abagune ekonomiak ditugu. Beraz, migrazioek estatuei kultur dibertsitatearen erronka planteatzen die dagoeneko asko kultur askotarikoak bihurtu direlako.

Era berean, aniztasun honek estatu sistemari eta, batez ere, Europako Batasunaren sistema demokratikoaren oinarrian dauden balioei, legezketasunaren defentsari eta giza eskubideei eragiten die. Are gehiago, erronkak krisia eragin duela ikus daiteke hainbat kasuetan. Adibide moduan hortxe dugu Brexit delakoaren kasua, eskuin muturraren gorakada unea, buruzagitza politikoen aldaketa eta gobernu berrien agerpena Austriari eta, batez ere, Italiari. Aipaturiko kasuetan migranteenganako politiken gogortzea eragin du lurrikada politiko-instituzional honek.

Errealitate global honen ondoan, tokian tokiko errealitate bat agertzen da Euskadi. Bertan kulturartekotasuna erdietsi asmoz bizikidetzara dugu helburu. Berau erdiesteko, eta kultura ugaritasunaren onarpenetik abiatuz, errespetua, enpatia, berdintasunaren alde eta bizikidetzara, arrazakeriaren eta xenofobia kontra egiten da. Beti ere, balio demokratikoei zein giza eskubideetan oinarrituriko justizia sozialari erreparatu.

## 2. HELBURUAK

Minor honen helburu nagusia da irakasleei hasierako formazio bat eskaintzea modu aktiboan kulturartekotasuna eraikitzeko gai izan daitezkeen hezkuntza, gizarte nahiz kultura eremuetan. Kymlickak (2004) dioten moduan, helburua muga etnikoen gainetik elkarrekiko konfiantza, elkar ulertzea, elkartasuna eta balio komuna oinarri dituen proiektu sendo eta trinkoa eraikitzea da. Honen harira, etorkizuneko irakasleak gai izango dira kulturarteko hezkuntza demokratikoa gauzatzeko. Ahalegin honetan, estatu, nazio eta herrien eta kulturen artean dagoen elkarmenpekototasuna

gertakizun positibo moduan ulertu behar da. Era berean, bakoitzaren autoidentifikazio kritikoa mundu mailako politikan sustatuko da.

Kylmicaren (2004) proposamenari jarraituz tokian-tokiko kulturartekotasun baten alde egingo dugu:

- 1) Daukagun ugaritasuna kulturala onartuz eta ezagutuz.
- 2) Aitortuz talde bakoitzak egindako ekarpenak (hizkuntza eta kulturari bereziki erreparatuz)
- 3) Parekotasun soziala babestuz. Tokian-tokiko kulturartekotasunetik abiatuz nahi dugu kulturartekotasun kosmopolita erdietsi.

Beraz, gai izan beharko genuke gure erosotasun maila gainditzeko, enpatia garatzeko, estereotipo eta aurreiritziak kuestionatzeko, gure muga pertsonala handitzeko eta gero eta globalizatuago dagoen munduan kulturen arteko elkarrengatiketa gauzatzeko.

Minor honetan, elkarbizitza eta kulturartekotasuna sustatzeko behar beharrezkoak diren gaitasunak landu nahi dira. Besteari entzun eta aditu, besteekin enpatizatu eta besteak onartu, alde batetik. Bestetik, iritziak, jarrerak, gertaerak kuestionatu eta gatazkak kudeatzen ikasi behar da. Honen bitartez, irakaskuntza-ikaskuntza esparruan elkarbizitzarako espazio eta mezu berriak sortu ahal izango dira.

### 3. .MINORREKO IRAKASLE TALDEA

Kultura arteko Hezkuntzarako Baliabideak eta estrategia didaktikoak	Igone Palacios <a href="mailto:igone.palacios@ehu.eus">igone.palacios@ehu.eus</a>
Fundamentos de la Educación Intercultural	Begoña Errasti <a href="mailto:bego.errasti@ehu.eus">bego.errasti@ehu.eus</a> Aritza Saenz del Castillo <a href="mailto:aritzsaenzdelcastillo@ehu.eus">aritzsaenzdelcastillo@ehu.eus</a>
Kultura artekotasunaren Komunitate Dimentsioa	Joseba Arregi <a href="mailto:josebainaki.arregi@ehu.eus">josebainaki.arregi@ehu.eus</a>
Kulturartekotasuna Eskolan	Ana Luisa López Vélez <a href="mailto:analuisa.lopez@ehu.eus">analuisa.lopez@ehu.eus</a>
Kultura arteko Hezkuntzarako Hezkuntza Politikak	Lorea Cortabarría <a href="mailto:lorea.cortabarría@ehu.eus">lorea.cortabarría@ehu.eus</a>
Proiektu Espezifikoaren Kudeaketa	I. Palacios, B. Errasti, J. Arregi, Ana Luisa López Vélez, L Cortabarría

#### 4. MINORKULT JARDUNALDIAK

Minor honetan aurkituko dituzuen berezitasunen artean aipamen berezia eskainiko diogu jardunaldien antolaketari. Urtero urtarrileko azken astean, justu zuen praktikaldia amaitzen denean, aste beteko iraupena duten jardunaldiak egingo dira. 6 urteko bidean lortu egin dugu kulturartekotasunaren idealari jarraitzen dion hezkuntza eta formakuntza lotzen dituen eremu instituzional-akademiko eraikitzea non Europa eta munduko aditu-arituak euren esperientzia eta kezka partekatzen dituzten. Bertan Eusko Jaurlaritza, Diputazioak, Aldundiak, Udaletxetako teknikariek, GKE zein eskola eta elkarte ezberdinek hartu izan dute parte. Esperientzia honek zuen formakuntzan jauzi handia egiteko eta sakontzeko aukera eskaintzen du eta gure Minorraren zutabe inportantea da.

Bere garrantzia ezin da zuen partaidetzatik bereizi. Aipaturiko aktore sozialen artean ezinbestekoa delako migranteen erakundeen ahotsa eta partaidetza babestea eta sustatzea. Hau gauzatzeko zuen laguntza beharko da eta ezinbestekoa izango da taldeka antolatuz jardunaldi hauetara migranteen erakunde bat ekartzea. Eginbehar hori Dimentsio Komunitarioaren zutabe inportantea izango eta balioztatuko da. Honetaz gaindi, gure hizlari gonbidatuei merezi duten harrera ona ematea eta eztabaida eta ikuspuntuen zorrotasuna eta hobekuntza garatu ahal izateko zuen parte hartzea ezinbestekoa gertatzen da. Beraz, zure iritzi, kezka, ekarpen nahiz proposamenak aireratu arazorik gabe. Ekimen honen bidez gure helburuak erdiesteko beharrezkoa den ikuspegi kritikoa eta auto konfiantza garatu dituzu.

#### 5. IKASGAI BAKOITZAREN DESKRIBAPEN LABURRA

##### FUNDAMENTOS DE LA EDUCACIÓN INTERCULTURAL (DPTO. DE DIDÁCTICA DE LAS CIENCIAS SOCIALES/DPTO. DE DIDÁCTICA DE LA LENGUA Y LA LITERATURA)

Esta asignatura es impartida por dos departamentos. Las primeras cinco semanas correrán a cargo del Departamento de Didáctica de las Ciencias Sociales que iniciará el curso tratando conceptos clave para la comprensión de los fenómenos interculturales (cultura, diversidad cultural, identidad, relaciones culturales simétricas-asimétricas, asimilación, aculturación, subordinación, coexistencia, convivencia, integración, inclusión...). Posteriormente, se realizará un acercamiento a los procesos interculturales desde el prisma de los Derechos Humanos Universales para generar una opinión formada sobre los logros, los retos, las dificultades... que se generan en la interacción cultural y que se manifiestan recurrentemente en enconadas polémicas que afectan al mundo educativo. Estas discusiones serán la base para introducir un cambio de paradigma que posibilite concebir la interculturalidad como un valor positivo con sus incontables ventajas frente a una sociedad uniforme y etnocentrista. El siguiente capítulo lo dedicaremos a examinar detenidamente el Curriculum Educativo vigente en el País Vasco y su tratamiento a la diversidad cultural. Así, analizaremos los objetivos y contenidos de la Competencia Social y Cívica relacionados y su materialización en diferentes recursos didácticos (libros de texto, TIC, ...). Por último, acometeremos un proceso de

descolonización del currículum desde las Ciencias Sociales, que posibilitará superar visiones y actitudes eurocéntricas, xenófobas, racistas... muy estereotipadas, resaltando las aportaciones de otras culturas al avance de la Humanidad

El resto del curso lo impartirá el Departamento de Didáctica de la Lengua y la Literatura. En este caso, se propone una inmersión en el aula, lugar donde se dan las interacciones entre docentes y alumnado, donde se trabaja con materiales concretos y donde se desarrolla el currículum académico y el currículum oculto. Para ello, se trabajarán cuestiones como la construcción de la identidad, las percepciones que el profesorado tiene sobre otras culturas, el tratamiento que los libros de texto dan a estas culturas y a los fenómenos migratorios, y por último se estudiarán diferentes propuestas para un currículum más inclusivo. El material de clase consistirá en situaciones concretas de aula donde se analizarán el comportamiento del profesorado, el uso del lenguaje, y las ilustraciones y textos del material escolar y su repercusión en la imagen/autoimagen del alumnado implicado. Por último, se tratará la cuestión del tratamiento de las culturas y lenguas de origen del alumnado.

La asignatura se imparte en castellano.

#### Competencias:

1. Analizar de forma crítica el significado del término “cultura” en sus distintos usos e intenciones.
2. Conocer los fundamentos deontológicos del quehacer docente para abordar situaciones escolares multiculturales
3. Comprender y valorar la pluralidad lingüística/cultural como riqueza e instrumento para el aprendizaje y la inclusión social
4. Comprender y avalorar la dimensión cultural del conocimiento científico, de otro tipo de conocimiento y del currículum como elemento de inclusión de los alumnos de origen multicultural.

#### KULTURA ARTEKOTASUNA ESKOLAN

Ikasgai honetan eskola eremuan kultura aniztasunak duen eragina aztertuko da. Azterketa antolakuntza mailatik, zein ikas-irakaste prozesuan parte hartzen duten elementuetan egingo da, parte hartzen duten agenteen arteko begirada eginez, dauden baliabideak kontutan hartuz, interakzio moduak aztertuz eta gatazken kudeaketak bilduz.

#### Gaitasunak

1. Eskola egoerak ezagutzea eta kultura anitzeko testuinguruetan jorratzea, eskola-eremuko esperientzia berritzaileak baloratuz

2. Trebetasun sozialak garatzea, familiak eskola-elkartean hartzeko, beraiekin lankidetzan aritzeko eta parte-hartzea errazteko.
3. Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua aztertzea, irakaskuntza-jarduera eta ikasgelako ikaskuntza diseinatzeko, antolatze eta ebaluatze.
4. Haur eta Lehen hezkuntzako eskolen antolakuntza eta funtzionamendurako jarduera anitzak ezagutzea.

### BALIABIDE eta ESTRATEGIA DIDAKTIKOA KULTURA ARTEKOTASUNERAKO

Ikasgai honetan kulturartekotasuna bultzatzen laguntzeko irakasle trebatua, arduratsua eta erreflexiboa izaten ikasteko hainbat baliabide eta estrategia didaktiko landu eta aztertuko dira. Horretarako, norbanakoen bizipen eta esperientzia praktikoak bultzatuko dira baliabide eta estrategia desberdin batzuk aurrera eramanez eta hauen inguruko hausnarketa eginez.

#### Gaitasunak

1. Haur eta lehen hezkuntzan kultura artekotasuna bultzatzeko metodologia berritzaileak ezagutzea eta praktikan esperimendatzea.
2. Esperientzia praktikoak oinarri izanik, irakasle praktikaren inguruko hausnarketa egiten ikastea, pertsonen garapen emozionala eta integrala sustatuz.
3. Pentsaera kritikoa eta argumentatzeko gaitasunak garatzea, erabaki arduratsuak hartzeko gai izateko eta hezkuntza arloko arazo eta gatazka konpontzen laguntzeko.
4. Ikasleen parte-hartze aktiboa eta arduratsua sustatzea, eta baita ere ikasgelako eta ikasgelatik kanpoko bizikidetzak.

### KULTUR ARTEKO HEZKUNTZARAKO HEZKUNTZA POLITIKAK

Ikasgai honetan kulturartekotasunari erantzuna emateko, politikak, hezkuntza sistemaren momentu eta testuinguru ezberdinetan izan duten eragina ezagutu, aztertu eta baloratuko da. Guzti hau aurrera eramateko, funtsezkoa izango da herrialde eta estatu ezberdinetako politikak aztertzea, betiere ikasleen gogoeta eta partehartzea sustatuz.

#### Gaitasunak

1. Kulturartekotasunari erantzun bat eskaintzeko, garai eta testuinguru ezberdinetako politikak ezagutu eta aztertzen ikasiko dute.

2. Erabaki arduratsuak hartzeko eta hezkuntza sisteman gerta litezkeen arazoei aurre egiteko, pentsamendu kritikoa garatuko dute.
3. Talde lanean jarduten eta taldekideekiko kompromesuak hartzen trebatuko dira.

## KULTURA ARTEKOTASUNAREN KOMUNITATE DIMENTSIOA

Kulturartekotasunaren dimensio komunitarioan gizabanakotik haratago dauden errealitateak abiapuntu moduan hartu ondoren migratzaileek euren gizarte berrietan moldatze aldera garaturiko esperientziak jorratuko dira. Beste herri batean bizitzeak baditu bere arazoak eta horien artean aipagarriak dira erbestea, herrimina, deserriratzea talka kulturala, neke kulturala eta Ulisesen sindromea, besteak beste. Errealitate horien ondorio txarrak saihestu asmoz gizabanakoek euren herri eta kultura kideekin batera hainbat estrategia garatu dituzte elkarrekin eta diasporak sortuz. Fenomeno hauek aztergai izango ditugu euskal diasporaren kasuan erabiliz beste diaspora batzuen errealitatearekin konparatzeko.

Bigarren atal batean, estatu-nazio eta etorkinen arteko harremani eta, batez ere, beldurrei erreparatuko zaie.

Azkenik, errealitate hauek hezkuntzarekin duten harremana eta berorri planteatzen dizkieten erronka eta aukerak izango ditugu aztergai. Aipaturiko gaiak jorratzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzako zein kulturartekotasunaren eraikuntzan ari diren elkarten partaidetza izango dugu gure ahaleginean laguntzeko. Ikasturte honetan beharrezkoa izango partaidetza aktiboa, irakurketa eta hausnarketa burutzea.

### Gaitasun orokorrak

- ▶ 1. Irakaskuntza proiektua aurrera eramateko jakintzagai ezberdinetan eskuratutako gaitasunak barneratzeko gai izatea, kultura anitzeko testuinguruetan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen konplexutasuna ulertzeko, gizarte-erakunde publikoetan eta pribatuetan duten inplikazio praktikoei dagokienez.
- ▶ 2. Ikastetxeko hezkuntza-testuingurua aztertzea inguruko social kultur anitzaren berezitasunei erreparatuz.
- ▶ 3. Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak diseinatzea, antolatzea, ezartzea eta ebaluatzea, bakarka nahiz zentzoko beste irakasleekin eta profesionalekin lankidetzan, testuinguru soziokultural aldakorrei erantzunez.
- ▶ 4 Kultura arteko esku-hartzeko proiektuak dinamizatzea, eskola-elkarteari eta ingurumen sozialari erreparatuz.

- ▶ 5 Ikasketa-guneak diseinatzea, kudeatzea eta arautzea, aniztasun-testuinguruetan, hiritartasun aktibo baterako hezkuntza demokratikoaren balioak osatzen eta eusten dituzten berdintasun-generoari, zuzentasunari eta giza eskubideekiko errespetuari erantzunez.

### Gaitasun espezifikoak

- ▶ Migranteek garaturiko nortasun kolektibo ezberdinak ezagutu
- ▶ Bidaia hasteko faktoreak ulertu
- ▶ Talka-Kulturala, kultur-nekea eta Ulisesen Sindromea ikasi
- ▶ Komunitate kultural desberdinen ezagutza lortu eta euren elkarteekin harremanetan sartu
- ▶ Kultur aniztasuna kudeatzeko eta kulturartekotasuna bultzatzeko agenteen lana eta proposamenak ezagutu

8

## 6. PROIEKTU ESPEZIFIKOEN KUDEAKETA: LANAREN DESKRIBAPENA

### 6.1. Deskribapen laburra: **Auzoa, kulturarteko espazioa**

Lauko taldeetan, Gasteizko auzo bat aukeratu eta bertan behatu behar da kultur aniztasuna dagoen eta kulturartekotasunerako espazioak/uneak dauden. Gainera, kulturartekotasuna sustatzeko lagungarria izan daitekeen esku hartze bat proposatu eta burutu behar da. Talde bakoitzari tutorea esleituko zaio egin beharreko lanaren nondik norakoak argitzeko. Hala ere, lana autonomoa da.

### 6.2. Egin beharreko lana

Auzoa aukeratu ondoren, bertara bisitak egin behar dira eta biztanleria orokorrean, eta biztanleen arteko interakzioak behatu behar dira. Non? Eskolan, kalean, parkean, osasun zentroan, dendetan, tabernetan, erakundeetan, elkartetan, kirol/aisi elkarteetan, auzo elkarteetan, kultura jardueretan eta espazioetan, ekitaldietan, gizarte etxean, eta abar.

Oso interesgarria izan daiteke adin eta genero faktoreak behatzea.

Lan honek sistematikotasuna behar du. Behatutakoa jaso egin behar da euskarri informatiko batean (sites, wikx, web...). Ondo berezitu behar dira:

- Lehen mailako iturriak: ikasleek beraiek lortutakoak (elkarrizketak, bideoak, argazkiak...)
- Bigarren mailako iturriak: erakundeek egindako txostenak, egunkarietako informazioa, datu estadistikoak...

Egindako guztiaren EBIDENTZIAK behar dira: grabazioak, argazkiak, koadernoak, bileretako aktak... Behaketaren ondorioak praktiketara joan baino lehen entregatuko dira.



Bigarren fasean, ikasle taldeak auzoan esku hartzea egin beharko du. Hau egin daiteke auzoko elkarte, eskola, talde batekin koordinaturik edo taldea bere kabuz. Lan hau **Ikasketa-Zerbitzuan** oinarrituko da

Bukaeran, egindako proiektuaren ahozko defentsa egin beharko da. Bertan, auzoaren aurkezpen laburra egitea eskatzen da, testuingurua ezagutzeko. Ondoren, auzoan egindako esku hartzea azalduko da eta prozesu guztiari buruzko hausnarketa egin: bizi izandako esperientzia, ikasitakoa, ekarpena, eta abar. Epai-mahaiaren galderei erantzun beharko zaie era indibidualean, honek taldearen partaide bakoitzaren notan eragina duelarik.

#### - Lan honen helburua

Ikasgai bakoitzean landutako edukien arteko loturak ezartzea, betiere kultur artekotasuna oinarri izanik.

#### 6.3. Proiektuari eskainitako dedikazioa:

Ikasgai honen berezitasuna landa-lana da. Beraz, astean zehar hiru klase ordu izan ordez, ordu bakarra ematen da. Beste bi orduak auzoan landa lana egiteko kontabilizatzen dira.

## 7. EMAN BEHARREKO LANEN KRONOGRAMA

- Kultura arteko Hezkuntzarako Baliabideak eta estrategia didaktikoak
- Kultura arteko Hezkuntzaren Oinarri Teorikoak
- Kultura artekotasunaren Komunitate Dimentsioa
- Kulturartekotasuna Eskolan
- Kultura arteko Hezkuntzarako Hezkuntza Politikak
- Proiektu Espezifikoaren Kudeaketa

10

Asteak	IRAILA				
					7
1	10	11	12	13	14
2	17	18	19	20 Banakako lana	21
3	24	25	26	27	28
URRIA					
4	1	2	3	4	5
5	8	9	10	11	12
6	15 Taldea txostena eman	16	17 Txostena aurkeztu T1,T2,T3	18 Banakako Lana Txostena aurkeztu T4,T5	19
7	22 22-26: banakako kontaketa eta taldeko kontaketa	23	24 Eskutitza eman	25	26 Wiks-a eta eskuartzearen aurre-proposamena
8	29	30	31		

Asteak	URTARRILA-OTSAILA				
		22 Erakundearen kontribuzioa			
9	28 JARDUNALDIAK	29 JARDUNALDIAK	30 JARDUNALDIAK	31 JARDUNALDIAK	1 JARDUNALDIAK

Asteak	OTSAILA				
10	4 Aurkezpena T1 Taldea hausnarketa	5	6	7 T1.Aurkezpena	8

	eta banakoen lanak eman				
11	11 Aurkezpena T2	12	13	14 T2.Aurkezpena	15
12	18 Aurkezpena T3	19	20	21 T3.Aurkezpena	22
13	25 Aurkezpena T4	26	27 Dinamiken lana eman	28 T4.Aurkezpena Klasean inplementatu (T1,T2,T3)	

11

Asteak	<b>MARTXOA</b>				
					1
14	4 Aurkezpena T5 4-15: Taldeko aurkezpenak	5	6 Ebaluazio froga (T1-T2) Klasean inplementatu (T4,T5))	7 T5.Aurkezpena	8
15	11 Ebaluazio froga (T3-T4)	12 Banakako hausnarketaren lana eman	13 Ebaluazio froga (T5-T6)	14 Portfolioa + talde lana	15
	AZTERKETAK	AZTERKETAK	20 AZTERKETAK	AZTERKETAK	22 AZTERKETAK
	25 PROIEKTUEN AURKEZPENA	26 HAUSNARKETA TEORIKO-PRAKTIKOA eta TALDE LANAREN TXOSTENA	AZTERKETAK	AZTERKETAK	AZTERKETAK
Asteak	<b>APIRILA</b>				

## 8. EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEKO ESKUBIDEA ETA ARAUDIA

Ebaluazio araudi berriaren arabera, ikasle guztiek eskubidea dute euren kalifikazioa lortzeko ebaluazio jarraitua edo mistoaren bidez. Eskubide horri uko egin nahi badio eta amaierako ebaluazioaren bidez ebaluatua izan, idatziz eskatu beharko dio dagokion irakasleari. Horretarako, irakasgaia seihilekoa baldin bada, dozentzia hasten denetik, 9 asteko epea izango du eta 18 astekoa irakasgaia urte osokoa denean.

**Horrek esan nahi du ebaluazio jarraituari uko egin nahi dion edozein pertsonak, 2019KO URTARRILAREN 7-11KO ASTEA BAINO LEHEN, eskatu behar duela amaierako ebaluazioaren bitartez ebaluatua izatea. Eskaera egiteko *ZENTROKO MODULU AKORDIOEN ETA BIZIKIDETZA AKORDIOEN GIDA*ko eranskinetan agertzen den eredua erabiliko da. (1. ERANSKINA)**

## 9. BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizko bibliografia

Battle, R. (koord.). (2016). *60 Jardunbide egoki Ikaskuntza-Zerbitzuan*. Bilbo: Zerbikas.

Bieter, J. eta Bieter, M. (2005) *Un legado que perdura: la historia de los vascos en Idaho*. Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Carrington, S., Mercer, K. L., Iyer, R. y Selva, G. (2015). The impact of transformative learning in a critical service-learning program on teacher development: Building a foundation for inclusive teaching. *Reflective Practice*, 16(1), 61-72.

Essomba. (2012) *Inmigración e interculturalidad en la ciudad: principios, ámbitos y condiciones para una acción comunitaria intercultural en perspectiva europea* Barcelona: GRAO

Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Vitoria-Gasteiz 2014. [https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u\\_4702e148\\_15040834fe3\\_7f96](https://www.vitoria-gasteiz.org/we001/was/we001Action.do?aplicacion=wb021&tabla=contenido&idioma=es&uid=u_4702e148_15040834fe3_7f96)

Furco, A. (1996). Service-learning: A Balanced Approach to Experiential Education. En *Expanding Boundaries: Service and Learning*, pp. 2-6. Washington DC: Corporation for National Service.

García, M. (Coord.). (2016). Aprendizaje-Servicio para el desarrollo de la educación inclusiva. En A. Palomares, *Liderazgo y empoderamiento docente, nuevos retos de la educación inclusiva en la sociedad del conocimiento* (pp. 109-115). Albacete: Universidad de Castilla La Mancha. [http://dx.doi.org/10.18239/jor\\_05.2016.03](http://dx.doi.org/10.18239/jor_05.2016.03)

Ikuspegi. Inmigrazioaren Euskal Behatokia/Observatorio Vasco de Inmigración. [www.ikustegi.eus](http://www.ikustegi.eus)

Lenguas pa' la citi <https://www.youtube.com/watch?v=0TA4Xa2rm74>

Mendía, R. (2012). El Aprendizaje-Servicio como una estrategia inclusiva para superar las barreras al aprendizaje y la participación. *Revista de Educación Inclusiva*, 5(1), 71-82.

Mugarra, A. (Ed.) (2013). *Aprendizaje y Servicio Universitario: creando sinergias*. Bilbao: Zerbikas Fundazioa.

Murillo, J. y Aramburuzabala, P. (2014). Aprendizaje-servicio y justicia social. *Cuadernos de pedagogía*, 450, 50-53.

Rubio, L. (koord.). (2008). Zerbikas gida 0: ikasketa eta zerbitzu solidarioaren sakelako gida. Indautxu, Zerbikas Fundazioa. [http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/0\\_eu.pdf](http://www.zerbikas.eus/wp-content/uploads/2016/01/0_eu.pdf).

Simó, S. (2013). El aprendizaje servicio universitario: materializando el compromiso social de la universidad desde una educación basada en la excelencia. *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, 19, 1027-1033.

Verjee, B. (2010). Service-learning: Charity-based or transformative? *Transformative Dialogues. Teaching & Learning Journal*, 4(2), 1-13.

Zerbikas (2013). 60 jardunbide egoki ikaskuntza zerbitzuan: xede sozialeko esperientzia hezigarrien inbentarioa. [https://gallery.mailchimp.com/bf9f13a8a71a9aae3eff8c03e/files/60\\_JARDUNBIDE\\_ONAK\\_Zerbikas.pdf](https://gallery.mailchimp.com/bf9f13a8a71a9aae3eff8c03e/files/60_JARDUNBIDE_ONAK_Zerbikas.pdf)

Zerbikas-en gainerako gidak hemen eskuragarri: <http://www.zerbikas.eus/guias-practicas/>

### **Sakontzeko bibliografia**

Ardèvol, E.; Muntañola, N. (2004) Representación y cultura audiovisual en una sociedad contemporánea. Ed. UOC: Barcelona.

Askoren artean (2006) Medios de comunicación e inmigración. Programa CAM Encuentro.

Askoren artean (2007) Hizkuntzak eta immigrazioa / Lenguas e inmigración. Ikuspegi-Amarauna Unesco

BENARROCH, A. (2001). Interculturalidad y enseñanza de las ciencias. *Alambique*, 29, pp. 9-23.

Coelho, E. (2006) Enseñar y aprender en escuelas multiculturales. Una aproximación integrada. ICE-Horsori

Díez Gutierrez, E.J. (2012) Educación Intercultural. Manual de Grado. Ediciones Aljibe.

## Internetgrafia

Zubirik-zubi: Ikasle etorkinen eskolatzeta. Lehen Hezkuntzarako materialak / Escolarización del alumnado inmigrante. Materiales para la educación primaria

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dia6/es\\_2027/adjuntos/zubirik\\_zubi/materiales\\_educacion\\_primaria/HASIERA.htm](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dia6/es_2027/adjuntos/zubirik_zubi/materiales_educacion_primaria/HASIERA.htm)

## 1. ERANSKINA. Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera



Irakaslearentzako frogagiria

Izena:

Abizenak:

NAN:

Irakasgaia:

Kurtsoa:

**Uko egiten dio** ohiko etengabeko ebaluazioko sistemaren bitartez ebaluatua izateari

**Eskatzen du** ohiko azkeneko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data:



Ikaslearentzako frogagiria

Izena

Abizenak

NAN

Irakasgaia

Kurtsoa

**Uko egiten dio** ohiko etengabeko ebaluazioko sistemaren bitartez ebaluatua izateari

**Eskatzen du** ohiko azkeneko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data: